



Bilbao Orkestra  
Sinfonikoa

DENBORALDIA 24 TEMPORADA  
25

urriak 10-11 octubre

© Symond Pauly

# Klasikoak gazteak dira

## BOSbaroque



Palacio Euskalduna Jauregia



osteguna | jueves 19:30 h  
ostirala | viernes 19:30 h



Desde 14,42 €-tik aurrera  
Gaztea (<30):  
desde 5,41 €-tik aurrera

Taquilla Euskaldunako lehiatila  
[www.bilbaorquestra.eus](http://www.bilbaorquestra.eus)



Bizkaia



Bilbao



**Julia Hagen, biolontxelo / violonchelo**  
**Lorenza Borrani, zuzendaria / directora**

## I

W. A. MOZART  
(1756 - 1791)

Bahiketa serrailoan, Obertura K. 384  
El rapto en el serrallo, Obertura K. 384

F. J. HAYDN  
(1732 - 1809)

Kontzertua biolontxelo eta orkestrarako Do Maiorrea Hob. VIIb:1  
Concierto para violonchelo y orquesta en Do Mayor Hob. VIIb:1  
I. Moderato  
II. Adagio  
III. Finale: Allegro molto

**Julia Hagen, biolontxelo / violonchelo**

## II

CAROLINE SHAW Entr'Acte\*  
(1982)

FRANZ JOSEPH HAYDN  
(1732 - 1809)

60. sinfonia Do Maiorrea Hob. I:60 "Il Distratto"\*  
Sinfonía nº 60 en Do Mayor Hob. I:60 "Il Distratto"\*  
I. Adagio - Allegro di molto  
II. Andante  
III. Menuet  
IV. Presto  
V. Adagio  
VI. Finale: Prestissimo

\* *Lehen aldiz BOSen eskutik / Primera vez por la BOS*  
Iraup. / Dur: 100' (g.g.b. / aprox.)



## EGITARAUAREN OHARRAK

### Enkarguzko jenialtasunak

Mozartek, Capital Cityra joan berri den 25 urteko gazteak, aitari idazten dio azken berriak kontatze aldera.

“Viena, 1781eko abuztuaren 1a.

Mon Très Cher Père!

[...] Bada, herenegun Stephanieik libreto bat eman zidan, konposatzeko. Aitortu behar dut ezen, nahiz eta beste pertsona batzuk oso gaizki tratatu –horren berririk ez badut ere– lagun bikaina dela nirekin. Libretoa nahiko ona da. Gaia turkiarra da eta izenburua honako hau da: Belmonte und Konstanze, edo Die Verführung aus dem Serail. Obertura, lehen ekitaldiko korua eta azken korua Turkiako musikaren estiloan idazteko asmoa dut. [...] Hain pozik nago opera hau konposatu behar izateaz ezen, Cavalieriren lehen aria, Adambergerrena eta lehen ekitaldia ixten duen trioa amaitu baititut. Epea laburra da, egia da, irailaren erdialdean izango baita emanaldia; baina inguruabarrek [...] hainbeste estimulatu naute, ezen nire idazmahaira joaten baina ezinezonik handienarekin, eta hantxe egoten naiz eserita, plazerrik handienarekin.

Errusiako duke handia hona etorriko da, eta horregatik Stephanieik erregutu zidan, ahal izanez gero, opera denbora-tarte labur honetan konposatzeko, enperadorea eta Rosenberg kondea laster itzuliko baitira, eta bere lehen galdera izango da ea ezer berririk prestatzen ari naizen [...]. Une horretan, Stephanieik pozik esan ahal izango du [...] okasiorako opera bat egiten ari naizela. [...] Adambergerrek eta Fischerrek ez beste inork ez daki ezer horri buruz, Stephanieik ezer ez esateko erregutu baitigu, Rosenberg kondeak kanpoan jarraitzen baitu, eta edozein errebelaziorik erraz ekar baititzake era guztietako esamesak. Stephanieik ez du nahi nire lagun onegitza har dezaten ere; aitzitik, jendeak hori guztia Rosenberg kondeak hala nahi duelako egiten duela pentsatzea nahi du. [...].

Ez dut besterik esateko, ez baitut berririk izan. Joango naizen gela prestatzen ari dira. Orain klabezin bat alokatzera aterako naiz, nire gelan halako bat egon arte ezin baitut bertan bizi, asko baitaukat konposatzeko eta ez baitut minutu bat ere galdu behar.

Egia da nire ostatu berrian erosotasun asko nabarituko ditudala faltan, batez ere otorduei dagokienez. Izan ere, hagitx premiazkoa zen zerbait amaitu behar nuen guztietan, Weberarren nik nahi adina atzeratzen zidaten bazkalordua; eta jantzi gabe idazten jarrai nezakeen, eta ondoko gelako mahaira joan, bai bazkaltzeko eta bai afaltzeko ere; orain, berriz, nire gelara janaria ekartzeko dirurik gastatu nahi ez dudanean, gutxienez ordubete galtzen dut janzen [...]. Badakizu, normalean, konposatzen jarraitzen dudala gose naizen arte. Bada, afaltzeko prest leudekeen lagun atseginak zortzietatik aurrera esertzen dira mahaira, edo zortzi eta erdian, beranduenez. Weberarren etxean ez genuen inoiz hamarrak baino lehenago egiten. Tira, adieu. Bukatu egin behar dut, teklatu baten bila irten behar baitut.

Laster arte. Mila aldiz musukatzen dizkizut eskuak, eta bihotz-bihotzez besarkatzen dut nire arreba maitea; badakizu, baita, zure semerik esanekoena izango nauzuna beti.

Wolfgang Amadè Mozart

P.D. Goraintziak Salzburgo osoari.”

## Notas al programa

### Genialidades por encargo

Mozart, un joven de 25 años recién trasladado a Capital City, escribe a su padre para contarle las últimas novedades.

“Viena, 1 de agosto, 1781.

¡Mon Très Cher Père!

[...] Pues bien, anteaier Stephanie le fils me dio un libreto sobre el que componer. Debo confesar que, por muy mal que pueda tratar a otras personas –sobre lo que no tengo constancia– es un excelente amigo conmigo. El libreto es bastante bueno. El tema es turco y el título es: Belmonte und Konstanze, o Die Verführung aus dem Serail. Tengo la intención de escribir la obertura, el coro del primer acto y el coro final en el estilo de la música turca. [...] Estoy tan encantado de tener que componer esta ópera que ya he terminado la primera aria de Cavalieri, la de Adamberger y el trío que cierra el primer acto. El plazo es corto, cierto es, pues se representará a mediados de septiembre; pero las circunstancias [...] me estimulan hasta tal punto que corro a mi escritorio con la mayor impaciencia y permanezco sentado allí con el mayor placer.

El Gran Duque de Rusia va a venir aquí, y por eso Stephanie me suplicó que, si fuese posible, compusiera la ópera en este breve espacio de tiempo, pues el Emperador y el Conde Rosenberg regresarán pronto y su primera pregunta será si se está preparando algo nuevo [...]. Momento en el cual Stephanie tendrá la satisfacción de poder decir que [...] estoy componiendo una ópera para la ocasión. [...] Nadie más que Adamberger y Fischer sabe aún nada al respecto, pues Stephanie nos ha rogado que no digamos nada, ya que el conde Rosenberg sigue ausente y cualquier revelación podría dar lugar fácilmente a todo tipo de habladurías. Stephanie ni siquiera quiere que se le considere demasiado buen amigo mío; sino que busca que se piense que hace todo esto porque el conde Rosenberg así lo desea. [...].

Bueno, no tengo nada más que decirle, porque no he tenido noticias. Están preparando la habitación a la que me voy a mudar. Ahora salgo a alquilar un clave, porque hasta que no haya uno en mi habitación, no puedo vivir en ella, porque tengo mucho que componer y no debo perder ni un minuto.

Bien es cierto que echaré de menos muchas comodidades en mi nuevo alojamiento, sobre todo en lo que se refiere a las comidas. Porque siempre que tenía que terminar algo muy urgente, los Weber me retrasaban la comida tanto como yo quisiera; y podía seguir escribiendo sin vestirme e ir luego a la mesa en la habitación contigua, tanto para comer como para cenar; mientras que ahora, cuando quiero evitar gastar dinero en que me traigan la comida a mis aposentos, pierdo por lo menos una hora vistiéndome [...]. Usted sabe que, por lo general, sigo componiendo hasta que tengo hambre. Pues bien, los amables amigos con los que podría cenar se sientan a la mesa a partir de las ocho, o las ocho y media como muy tarde. En casa de los Weber nunca lo hacíamos antes de las diez. Bueno, adieu. Debo terminar, porque tengo que salir a buscar un teclado.

Hasta pronto. Beso sus manos mil veces y abrazo a mi querida hermana con todo mi corazón, y soy siempre su hijo más obediente.

Wolfgang Amadè Mozart

P.D. Mis saludos a todo Salzburgo.”



Bitxia da zenbat gauzarekin entera gaitezkeen gutun pribatu bat irakurriz. Ikus ditzagun horietako batzuk:

Itxura guztien arabera, Bahiketa serrailoan opera zeharo ospetsua, lehenik, presaka, bigarrenik, ezkutuan, eta, hirugarrenik, Gottlieb Stephanie zuzendariak Joseph II.a enperadoreari koipe apur bat eman ziezaien konposatu zen.

Gauza gehiago: Mozart pianoan eserita idazten zuen konpositore horietakoa zen. Ea ba. Argi gera dadila. Wolfgangek ez zuen musika entzuteko inolako beharrik. Berari –eta musikaren jeinutzat jo ditzakegun gainerakoei– nahikoa zitzaien begiak ixtea eta barnean edozein pasarte entzutea. Geuk ere ez dugu nobela bat ozen irakurri behar. Mozartek bizioagatik egiten zuen hori, musika gainerako gizakiok entzuzko genuen bezala entzutearen plazer hutsagatik alegia.

Gauza gehiago: Mozarti izugarri gustatzen zitzaion bere lana. Tira, harentzat ez zen lana. Beno, egia esan, lana bazen. Azken batean, Mozartek goseak akabatu arte lan egiten zuen. Amaginarrebaren eta aitaginarrebaren etxean lan egiten duzula? Ederki. Korridore bat zeharkatu eta zerbait jaten duzu Constanza née Weber emaztearekin eta haren gurasoekin. Etxez aldatu zarela eta gainera ez duzula dirurik Telepizzara deitzeko? Bada, Mendebaldeak pixka bat itxaron beharko du, harik eta zu txukundu, zerbait jatera atera eta lanera itzuli arte.

Ea, Mendebaldean pixka bat itxarongo dugula esatea esaera bat besterik ez da. Ordubete txukuntzeko! Birjina maitea! Baina nola bizi zen morroi hau etxean? Edo informatikari zarpail moduko morroia zen bere bertsio musikalean –coca-cola lata hutsez eta janari txinatarren hondarrez inguratua– edo, aitzitik, koketeriaren gailurra jotzen zuen eta hiru dutxa jarraian hartzen zituen kalea zapaltzea pentsatu ere egin aurretik. Zenbat musika-obra utziko ote zituen Mozartek idatzi gabe apaintzeko behar zituen ordu guztiak kontatuz gero.

Bahiketa serrailoan obra konposatzen, bederik, aski denbora eman zuen. Eta obertura turkiar estiloan egiteko asmoa bete zuen. Zer zen garai hartan turkiar musika-estiloa, austriar baten belarrietatik hautesmana? Funtsean, Jenizaroen Banda handi bat zen, prozesioan zihoztenak tunika brodatuekin eta turbanteekin: modulazio gutxi, triangulu asko eta zarata handia. Astrapala, garbi esanda. Obertura hau operetako turkiarrekin egindako keinu-joko bat baino ez da. Baldin eta opereta bada. Rossini, garbi-garbian.

Enperadore ospetsuak komedia entzun ahal izan zuen, eta legendak kontatzen du Mozarti, gizalegez, "Nota asko, Mozart maitea, nota asko" esaldi ospetsua komentatu ziola. Eta Mozartek, gizalegez baino areago –badaezpada ere–, "Beharrezkoak bakarrik, Maiestate" erantzun ospetsua eman zion. Lastima da hori baino ez izatea: legenda bat. Antzeko zerbait esan zion Boccherinik bere erregeari garai hartan, eta horregatik galdu zuen bere postua urte askoan. Hala ere, egia esateko, Boccheriniren erantzuna lotsagabeagoa izan zen. "Musikaz hitz egiteko jakin egin behar da musikaz, Maiestate". Erantzun horrek nahaspila eragin zuen, jakina.

Nagusi batentzat lan egiteak, eta are gehiago aristokrata bada, badu bere artea. Esan diezaiotela Haydni, Mozarten garaikide eta adiskideari. Modu asko daude zerbitzari batek mezu bat helarazteko, eta umorea aukera ona izaten da. Kopetaraino gaudela Eszterházyarren udako egoitzan giltzapeturik egoteaz eta gure familiarekin itzuli nahi dugula? Bada, Haydnen sinfonia bat idatzi zuen, non musikariek jotzeari utzi eta eszenatokitik alde egiten baitzuten, bi bakarrik geratu arte. Nikolaus I.a printzeak ongi hartu zuen, eta biharamunean gortea

Hay que ver la de cosas de las que se entera uno leyendo una carta privada. Podemos repasar algunas:

Todo apunta a que la infinitamente famosa ópera El rapto en el serrallo se compuso –uno– a la carrera, –dos– a escondidas, y –tres– para que el Director Gottlieb Stephanie le pudiera hacer un poco la pelota al Emperador José II.

Más cosas: Mozart era de esos compositores que escribía sentado al piano. A ver. Que quede claro. Wolfgang no tenía ninguna necesidad de oír la música. A él –y al resto de la gente un poco capaz del gremio– les bastaba con cerrar los ojos y escuchar internamente cualquier fragmento. Lo mismo que nosotros no tenemos que leer en voz alta una novela. Mozart lo hacía por vicio; por el puro placer de oír la música tal y como la íbamos a escuchar luego el resto de los mortales.

Más cosas: a Mozart le encantaba su trabajo. Bueno, que no era un trabajo. Bueno, que en realidad sí que lo era. En fin, que Mozart curra-ba hasta que desfallecía del hambre. ¿Que te pilla en casa de tus suegros? Genial. Cruzas un pasillo y comes algo con tu mujercita Constanza née Weber y sus papis. ¿Que te acabas de mudar y además no tienes pasta para llamar al Telepizza? Pues Occidente tendrá que esperar un poco a que te adecen, salgas a comer algo y vuelvas al tajo.

A ver, eso de que en Occidente vamos a esperar un poco es un decir. ¡Una hora para prepararse! Madre del Amor Bendito. ¿Pero exactamente en qué condiciones vivía este caballero en casa? O era una especie de informático desarraigado versión musical –rodeado de latas vacías de coca-cola y restos de comida china– o, lo contrario, era el colmo de la coquetería y se daba tres duchas consecutivas antes de siquiera pensar en pisar la calle. Pone los pelos de punta echar cuentas de la música que Mozart nunca llegó a escribir si sumamos todas las horas de acicalamiento.

Por lo menos a El rapto en el serrallo sí que le dio tiempo. Y cumplió con su intención de hacer la Obertura en estilo turco. ¿En qué consistía por aquel entonces el estilo turco musical, percibido desde los oídos de un austriaco? Pues básicamente en una nutrida Banda de Jenizaros procesionando en túnicas bordadas y turbantes: poca modulación, mucho triángulo y mucho fragor. Bulla, para entendernos. Esta Obertura es poco más que un guiño con turcos de opereta. Si es que, en realidad, es una opereta. Rossini en estado puro.

El famoso Emperador pudo oír la comedia, y la leyenda cuenta que le comentó a Mozart, cortésmente, la famosa frase "Muchas notas, Querido Mozart, muchas notas". A lo que Mozart, más que cortésmente –por la cuenta que le traía–, le dio la famosa respuesta "Solo las necesarias, Majestad". Es una pena que muy probablemente sea eso: una leyenda. Algo parecido le soltó Boccherini a su rey por aquella época, y le costó el puesto un buen puñado de años. Aunque, para ser sinceros, la respuesta de Boccherini fue un poco más subidita. Algo así como "Para hablar de música hay que saber, Majestad". Normal que se liara la que se lio.

Trabajar para un jefe, y más si es un aristócrata, tiene su arte. Que se lo digan a Haydn, contemporáneo y amigo de Mozart. Siempre hay formas en las cuales el sirviente puede hacer llegar un mensaje, y el humor suele ser una buena opción. ¿Que estamos hasta el gorro de permanecer encerrados en la residencia estival de Eszterháza y queremos volver con nuestras familias? Pues Haydn escribe una sinfonía en la cual los músicos vamos dejándo de tocar y abandonando el escenario hasta que sólo quedaron dos. El príncipe Nikolaus I se lo tomó a buenas y al día



itzuli egin zen. "Les Adieux" 45. sinfonia mitikoa. Tropa jokoan sartu zen 1772an.

Dena ondo baldin bazihoan, eta badirudi Eszterházytarrekin gaiak modu zibilizatuan tratatzen zirela, Haydnen orkestrako musikariak ondo jagon da eta errespetatuta senti zitezkeen. Haien artean Joseph Weigl biolontxelo-jotzailea zegoen; musikaria Haydn bera baino aste batzuk geroago sartu zen familiaren zerbitzura. Konpositoreak, haren trebeziaren jakitun, 60ko hamarkadaren hasieran kontzertu bat idatzi zion, haren luzimendurako: Do maiorreko VIIIb:1 kontzertua, gaur gauean entzungo duguna alegia. Eta txiripaz entzungo dugu; izan ere, obra pribatua zenez, ia familiarra, galduta egon zen harik eta Pragako Museo Nazionalan kopia bat agertu zen arte, berrehun urte geroago, hau da, 1961ean.

Obra honen musikak Weiglen bertuosismo guztia hedatzen du, partituran ikusten dugunaren arabera gutxi ez zena. Eta Nikolaus printzea erabat kontziente izan zen haren merezimenduz, zalantzarik gabe, bera ere hari grabeko instrumentu baten interpretea baitzen: barytonarena –erresonantziako soka sinpatikodun viola da gamba, alegia. Baliteke Nikolausek barytona grazia gutxiagorekin jotzea, baina musikarekiko zuen maitasuna, eta musika jotzeko zuen prestutasuna, zalantza guztietatik at geratzen ziren. Irakur dezagun bere idazkariari idatzi zion gutun bat, urte hauetakoa, 1765ekoa hain zuzen ere:

“Azkenik, biziki erregutzen zaio Haydn Capellmeister horri konposizioetan orain arte baino arreta handiagoz saia dadila, eta, bereziki, viola da gamba musika-tresnarekin uki daitezkeen piezak idatziz ditzala, horietatik oso gutxi ikusi baititugu orain arte; eta eginbide hori epaitu ahal izateko, aldioro bidali beharko digu konposizio guzti-guztien lehen kopia, garbi eta kontu handiz idatzia.”

Haydnek lanari gogoz ekin zion, eta horrela, hurrengo urteko urtarrilaren hasieran, printzeak idazkariari idatzi zion berriro:

“Une honetan Haydn hiru pieza bidali dizkit, asko gustatzen zaizkidanak. Hainbestez, altxorreko hamabi dukat ordaindu beharko dizkiozue nire izenean, eta, aldi berean, esaiozue beste sei pieza idatzeko, bidali dizkidanak bezalakoak, bi bakar-piezarekin batera, ahalik eta lasterren eman diezazkidan.”

Haydn biolontxelorako bi kontzertu konposatu zituen, bere orkestrako bakarlarari bakoitzarentzat bana. Baina aldi berean, ehun eta berrogeita hamar obra baino gehiago idatzi zituen baryton musika-tresnaz jotzeko. Gaur egun ia abandonatuta dagoen erreperitorioa da, mezenas musikalen baten interes aktiboaren emaitza dena. Ikertua izateko zain dagoen altxorra.

Umoreak eta konplizitateak ohiko ezaugarriak izaten jarraitu zuten Haydnen konposizioetan, Eszterházytarrekin izandako harremanean. Horren erakusgarri dugu –beste bat– "Il Distratto" 60. sinfonia, 1774 ingurukoa. Spoilerrik ez. Itxaron dezagun bere sei mugimenduetako azkena entzun arte.

Haydn dibertitu eta liluratu egin zuen Wolfgang Amadeus Mozart bere lankide estimatua, eta bai bere patroia estimatua, Eszterházytarren Etxeko ondoz ondoko lau printze, edo Ludwig van Beethoven bere dizipulu estimatua. Estatu Batuetako musikagile gazte bat ere zeharo liluratu zuen: Caroline Shaw. Ikus dezagun nola kontatzen duen musikagile honek:

“Entr’Acte 2011n idatzi zen, Brentano laukotea Haydnen Opus 77 2. zenbakia jotzen entzun ondoren, Re bemol maiorrean minuettotik triorako trantsizio soil eta hunkigarriarekin. Minuetto bat eta trio bat

siguiente la corte se mudó de vuelta. La legendaria Sinfonía No. 45 “les Adieux”. La tropa se la jugó en 1772.

Si todo iba razonablemente bien, y parece que con los Esterházy los asuntos se trataban civilizadamente, los músicos de la orquesta de Haydn podían sentirse cuidados y respetados. Entre ellos se encontraba el violoncellista Joseph Weigl, quien había entrado al servicio de la familia pocas semanas más tarde que el propio Haydn. El compositor, sabedor de sus capacidades, le escribió a principios de los 60 un concierto para su lucimiento: el Concierto en Do mayor VIIIb:1, que escucharemos esta noche. Y lo escucharemos de milagro porque, al ser una obra privada, casi familiar, anduvo perdido hasta que apareció una copia en el Museo Nacional de Praga doscientos años más tarde, en 1961.

La música de esta obra despliega todo el virtuosismo del que Weigl era capaz, que no era poco a tenor de lo que vemos en la partitura. Y el príncipe Nikolaus fue sin duda plenamente consciente del mérito, porque él mismo era intérprete de un instrumento de cuerda grave: el baryton –una viola da gamba con cuerdas simpáticas de resonancia-. Es posible que Nikolaus tocara con menos garbo el baryton, pero su amor por la música, y su diligencia para obtenerla, quedaban fuera de toda duda. Leamos una carta a su secretario fechada por estos años, concretamente en 1765:

“Por último, se ruega encarecidamente a dicho Capellmeister Haydn que se aplique a las composiciones con más diligencia que hasta ahora y, especialmente, que escriba piezas que puedan tocarse con la viola da gamba, de las que hasta ahora hemos visto muy pocas; y para poder juzgar dicha diligencia, nos deberá enviar cada vez la primera copia, limpia y cuidadosamente escrita, de todas y cada una de las composiciones.”

Haydn se puso las pilas y, así, a principios de enero del año siguiente, el príncipe vuelve a escribir a su secretario:

“En este momento he recibido de Haydn tres piezas que mucho me agradan. En consecuencia, deberéis pagarle en mi nombre doce ducados del tesoro y decidle al mismo tiempo que escriba otras seis piezas como las que acaba de enviarme, junto con dos solos, para que me las entregue lo antes posible.”

Haydn compuso dos conciertos para violoncello, uno para cada uno de los solistas de su orquesta. Pero en paralelo escribió más de un centenar y medio de obras para baryton. Un repertorio hoy en día casi abandonado, fruto del interés activo de un mecenas musical. Un tesoro que espera a ser explorado.

El humor y la complicidad continuaron siendo rasgos habituales en las composiciones haydnianas en su relación con los Esterházy. Como muestra de ello –otra– encontramos la Sinfonía No. 60 “Il Distratto”, fechada en torno a 1774. Nada de spoilers. Simplemente esperemos hasta el último de sus seis movimientos.

Haydn no sólo divirtió y fascinó a su estimado colega Wolfgang Amadeus Mozart; o a sus estimados patrones, cuatro príncipes consecutivos de la Casa de los Esterházy; o a su estimado discípulo Ludwig van Beethoven. También encantó a una joven compositora norteamericana: Caroline Shaw. Vemos cómo lo cuenta ella misma:

“Entr’Acte fue escrito en 2011 tras escuchar al Cuarteto Brentano tocar el Op. 77 n.º 2 de Haydn, con su sobria y conmovedora transición del minuetto al trío en Re bemol mayor. Está estructurado



bezala egituratuta dago, forma klasiko horretan inspiratuz, baina pixka bat urrunago eramanez. Atsegin dut musika batzuek (Opus 77ko minuettoek, adibidez) bat-batean Aliceren ispiluaen beste aldera nola eramaten zaituzten, trantsizio zentzugabe, sotil eta teknikolor moduko batean.”

Obrak, Prokofiev-ek eta Britten-ek okupatu zuten lekua hartuz, publikoaren onespina erdietsi zuen berehala; handik gutxira orkestrarako moldatu zen, eta egilearentzat ospea gehitzen jarraitu zuen. Ospe horrek Pulitzer saria irabaztera eramane zuen 2013. urtean. Shawk lan asko egiten du oraindik, eta ondo egiten du lan. Kolore eta tribu estetiko guztietako dozenaka artistarekin lan egin izan du; besteak beste, Rosaliarekin. Baliteke mezenasgo- eta finantzaketa-iturriak zertxobait aldatu izana, baina Shawk Mozarten edo Haydnen lanbidetik hagitx hurbil dagoen modua du bere lanbidea ulertzeko.

**Joseba Berrocal**

como un minuetto y un trío, inspirándose en esa forma clásica, pero llevándola un poco más lejos. Me encanta cómo algunas músicas (como los minuettos del Op. 77) te llevan de repente al otro lado del espejo de Alicia, en una especie de transición absurda, sutil y en technicolor.”

La obra, ocupando un espacio donde ya habitaron Prokofiev y Britten, obtuvo rápidamente la aprobación del público, se arregló para orquesta a la de poco tiempo, y siguió sumando prestigio para su autora. Un prestigio que le hizo ganar nada menos que el Pulitzer en 2013. Shaw sigue trabajando mucho, y trabaja bien. Ha colaborado con decenas de artistas de todos los colores y tribus estéticas; entre otras con Rosalía. Puede que las fuentes de mecenazgo y financiación hayan cambiado algo, pero Shaw tiene una forma de entender la profesión muy cercana a las de Mozart o Haydn.



## Julia Hagen, biolontxelo / violonchelo



© Symond Pauly

Naturaltasuna eta berotasuna, bizitasuna eta kemena: ezaugarri horiek baliatzen ditugu Julia Hagenen jotzeko modua deskribatzeko. Salzburgoko txelo-jotzaile gaztea, musika-familia baten ondorengo, orkestradun bakarlari bezain sinesgarria da musikari aipagarriekin batera egiten dituen ganbera-musikako kolaborazioetan. Orain Vienan bizi den 28 urteko gazteak nagusitasun teknikoa, estandar artistiko gorenak eta musika-sorkuntzarako hurbilketa zuzena eta komunikatiboa uztartzen ditu.

2023/24 denboraldiaren alderdirik aipagarrienak Krystof Urbanskiren zuzendaritzapean Dresdner Philharmonie orkestrarekin emandako kontzertuak eta European zehar egindako bira dira. Lisboako Orkestra Metropolitanaz gain (Enrico Onofri), Kolonbiako Orkestra Sinfoniko Nazionalarekin (Jonathan Bloxham), Espainiako Orkestra Nazionalarekin (Giovanni Antonini), Kristiansand Symphony Orkestrarekin (Julian Rachlin) eta Kammerakademia Potsdam-ekin (Paul McCreesh) jo izan du. Berlingo Rundfunk-Sinfonieorchester deritzon orkestrara ere itzuli zen, Andrés Orozco-Estradaren zuzendaritzapean. Radio Franceko Orchestre Philharmonique-n egin zuen debuta, Gražinytė-Tyla-ren gidaritzapean, eta kontzertuak eman zituen Parisko Philharmonie eta Wiener Musikverein-ekin. Beste debut batzuek Suitzara eroan zuten Wiener Symphoniker orkestrarekin, Petr Popelka zuzendari nagusiaren agindupean. Grafenegg Festival musika-jaialdian ere izan zen, Brno Philharmonic orkestrarekin, Dennis Russell Daviesen zuzendaritzapean.

Ganbera-musikako jarduera ugarien artean, aipatzekoak dira, bereziki, Igor Levit eta Reaud Capuçonekin Schubertiade Schwarzenberg-en, Londresko Wigmore Hall-en eta Vienako Musikverein-en emandako trio-kontzertuak. Aipagarriak dira, halaber, Sofia Gubaidulinaren 'Canticle of the Sun' izeneko emanaldiak, Los Angeles Master Chorale abesbatzarekin, Salzburger Festspiele-n. Ganbera-musikako beste kide batzuk honako hauek dira, besteak beste: Anneleen Lenaerts, Mao Fujita, Lukas Sternath, Nikolai Lugansky eta Sir Andrés Schiff.

Julia Hagen bost urterekin hasi zen biolontxelo jotzen. Enrico Bronzirekin ikasi zuen Salzburgon eta Reinard Latzkorekin Vienan. Ondoren, Heinrich Schiff-en klasean ikasi zuen urte batzuetan, 2013tik 2015era, eta Berlingo Arteen Unibertsitatean amaitu zituen ikasketak, Jens Peter Maintz-en eskutik. Hagenek Kronberg Academyren beka bat lortu zuen, eta Wolfgang Emmanuel Schmidtekin ere ikasi zuen 2022ra arte. Liezengo Nazioarteko Txelo Lehiaketa eta Chelo Mazzacurati Lehiaketa irabazi zituen; halaber, Hajek-Boss-Wagner Kultura Saria eskuratu zuen, eta bai Verbier Festival Academyren Nicolas Firmenich saria ere, txelo-jotzaile gazte onenaren atalean, besteak beste.

2019an atera zuen bere lehen diskoa Annika Treutlerrekin batera, Hänslar Classic disko-etxean, Johannes Brahmsen bi txelo-sonatekin. Grabazio gehiago prestatzen ari dira. Juliak Francesco Ruggieri instrumentu bat jotzen du (Cremona, 1684).

Naturalidad y calidez, vitalidad y coraje: estas cualidades suelen utilizarse para describir la forma de tocar de Julia Hagen. La joven chelista de Salzburgo, descendiente de una familia musical, es tan convincente como solista con orquesta como lo es en sus colaboraciones de música de cámara junto a destacables músicos. La joven de 28 años, que vive ahora en Viena, combina dominio técnico con altos estándares artísticos y una aproximación directa y comunicativa a la creación musical.

Aspectos destacados de la temporada 2023/24 incluyen conciertos con la Dresdner Philharmonie bajo la batuta de Krystof Urbanski seguido de una gira Europea. Además de la Orquesta Metropolitana de Lisboa (Enrico Onofri), Orquesta Sinfónica Nacional de Colombia (Jonathan Bloxham), Orquesta Nacional de España (Giovanni Antonini), Kristiansand Symphony Orchestra (Julian Rachlin) y Kammerakademia Potsdam (Paul McCreesh). También hace su retorno a la Rundfunk-Sinfonieorchester Berlín bajo Andrés Orozco-Estrada y hace su debut en la Orchestre Philharmonique de Radio France bajo la batuta de Gražinytė-Tyla con conciertos en la Philharmonie de Paris y Wiener Musikverein. Debuts adicionales la llevan de gira a Suiza con la Wiener Symphoniker bajo el Director Principal Designado, Petr Popelka, y al Grafenegg Festival con la Brno Philharmonic bajo la dirección de Dennis Russell Davies.

Entre sus múltiples actividades de música de cámara, cabe mencionar en particular los conciertos de trio con Igor Levit y Reaud Capuçon en la Schubertiade Schwarzenberg, el Wigmore Hall de Londres y el Musikverein de Viena y sus actuaciones de Canticle of the Sun de Sofia Gubaidulina con el Los Angeles Master Chorale en el Salzburger Festspiele. Otros compañeros de música de cámara incluyen Anneleen Lenaerts, Mao Fujita, Lukas Sternath, Nikolai Lugansky y Sir Andrés Schiff.

Julia Hagen empezó a tocar el violonchelo a los cinco años. Su preparación con Enrico Bronzi en Salzburgo y Reinard Latzko en Viena fue seguido por años formativos en la clase de Heinrich Schiff de 2013 a 2015 y finalizó sus estudios en la Universidad de las Artes en Berlín de la mano de Jens Peter Maintz. Hagen obtuvo una beca de la Kronberg Academy y también estudió con Wolfgang Emmanuel Schmidt hasta 2022. Ganó la Competición Internacional de Chelo de Liezen y la Competición de Chelo Mazzacurati y obtuvo el Premio de Cultura Hajek-Boss-Wagner además del premio Nicolas Firmenich del Verbier Festival Academy como mejor joven chelista, entre otros premios.

En 2019 lanzó su primer álbum junto a Annika Treutler con las dos sonatas de chelo de Johannes Brahms en Hänslar Classic. Se están preparando más grabaciones. Julia toca un instrumento de Francesco Ruggieri (Cremona, 1684).



## Lorenza Borrani, zuzendaria / directora



© Píera Mungiguerra

Lorenza Borrani zuzentzen dituen interpretazio eta programa inspiratzaileak eta musika-sorkuntzaren ikuspegi integratzaileak aintzatespen handia dute nazioarteko orkestren alorrean.

2023/24 denboraldian, Scottish Chamber Orkestrarekin egin zuen debuta, Madernaren obrekin eta Beethovenen 7. sinfoniarekin osatutako programa batean; debuta egin zuen, halaber, Parisko Orkestrarekin, Ligetiren Kammerkonzertekin, Haydnen Sinfonia Kontzertantearekin eta Le Distrat 60. sinfoniarekin. Beti bezala, Lorenza pertsonaia ezaguna da Eskandinaviako herrialdeetan, eta Suediako eta Norvegiako ganbera-orkestretara, Västerås Sinfonietara eta Arctic Philharmonicera itzuli da, denboraldi honetatik aurrera kolaboratzaile artistiko gisa; Musica Vitae-rekin egin du debuta. Aurreko denboraldien artean, nabarmentzekoak dira Bernako Cameratarekin, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin eta Arctic Philharmonicekin egindako debutak. Ostrobothnian Orkestrara, Riga Sinfonietara eta Australian Chamber Orkestrara egin dituen bisitak ere aipagarriak dira. Bertan, Lorenzak Prokofieven biolinerako 1. sonatako orkestra-konponketa propioa estreinatu zuen.

25 urte zituela, Lorenza Borrani Europako Ganbera Orkestrako zuzendari izendatu zuten. Nikolaus Harnoncourt eta Lorenzo Coppolarekin egindako lanak garai bateko interpretazioarekiko maitasuna eta ezagutza ekarri zizkion. Lorin Maazel eta Symphonica Toscanini, Claudio Abbado eta Orchestra Mozartekin izandako topaketek, non Mozarten Biolinerako 7. kontzertua ere interpretatu baitzuen, forma eman zieten bere ideia eta interes musikalei. Bakarlarri gisa, Trevor Pinnock, Yannick Nézet-Séguin eta Bernard Haitink-ekin kolaboratu izan du.

Ganbera-musikaren esparruan, Lorenzak Kristian Bezuidenhout, Andrés Schiff, Pierre-Laurent Aimard, Janine Jansen eta Daniel Hope artistekin kolaboratu du, eta sarritan Alexander Lonquichekin batera jotzen du, duo gisa. Lorenza 'Spunicunifait' taldearen sortzaileetako bat da, eta Mozarten hari-boskoteak interpretatu eta grabatzen ditu bertan. Gaur egun taldea Alpha diskoetxearentzat grabatzen ari da eta Bremengo Festspiele-n eta Londresko Wigmore Hall-en emanaldiak ditu programatuta.

Lorenza 'Spira mirabilis' laborategiaren sortzaileetako bat da. Garai guztietako orkestra-errepertorioa eta ganbera-musika prestatu eta interpretatzeko langunea da. Zuzendaririk eta liderrik gabe lan egiten dute. Haren azken proiektuen artean, honako hauek daude: Mozarten 'Figaroren ezteiak' opera, Beethovenen 9. Sinfonia, Mozarten 'Cosi fan tutte' operaren atalak eta Colin Matthewren 'Spiralling' lanaren estreinaldia, Aldeburghen.

Lorenzak Alina Company, Piero Farulli, Zinaida Gilels eta Pavel Vernikovekin ikasi zuen Scuola di Musica di Fiesole-n, eta graduondoko ikastaroa egin zuen Kunstuniversität Graz-en, Boris Kuschnir-ekin. Biolin irakaslea da Scuola di Musica di Fiesole-n eta 2019tik irakasle gonbidatua da Londresko Royal Academy of Music-en.

Las inspiradoras interpretaciones y programas dirigidos por Lorenza Borrani, y su enfoque integrador de la creación musical cuentan con un gran reconocimiento por parte de las orquestas a nivel internacional.

En la temporada 2023/24, debuta con la Scottish Chamber Orchestra en un programa con obras de Maderna y la Sinfonía n° 7 de Beethoven, y debuta con la Orquesta de París con el Kammerkonzert de Ligeti, la Sinfonía Concertante de Haydn y la Sinfonía n° 60 Le Distrat. Popular como siempre en los países nórdicos, Lorenza regresa a las orquestas de cámara sueca y noruega, a la Västerås Sinfonietta y a la Arctic Philharmonic como colaboradora artística a partir de esta temporada y debuta con Musica Vitae. Entre las temporadas anteriores destacan sus debuts con la Camerata de Berna, la Orquesta Sinfónica de Bilbao, la Arctic Philharmonic y sus visitas a la Ostrobothnian Orchestra, Riga Sinfonietta and Australian Chamber Orchestra, donde Lorenza estrenó su propio arreglo orquestal de la Sonata para violín n° 1 de Prokofiev.

A los 25 años, Lorenza Borrani fue nombrada directora de la Orquesta de Cámara de Europa. Su trabajo con Nikolaus Harnoncourt y Lorenzo Coppola inspiró su amor y conocimiento de la práctica interpretativa de época. Sus encuentros con Lorin Maazel y la Symphonica Toscanini, Claudio Abbado y la Orchestra Mozart, donde también interpretó el Concierto para violín n° 7 de Mozart, dieron forma a sus ideas e intereses musicales. Como solista, ha colaborado con Trevor Pinnock, Yannick Nézet-Séguin y Bernard Haitink.

En el ámbito de la música de cámara, Lorenza ha colaborado con artistas como Kristian Bezuidenhout, Andrés Schiff, Pierre-Laurent Aimard, Janine Jansen y Daniel Hope, y a menudo toca en dúo con Alexander Lonquich. Lorenza es una de las fundadoras de Spunicunifait, conjunto con el que interpreta y grabar los quintetos de cuerda de Mozart. El grupo está grabando actualmente para el sello Alpha y tiene programadas actuaciones en el Festspiele de Bremen y en el Wigmore Hall de Londres.

Lorenza es una de las cofundadoras de Spira mirabilis, un laboratorio para la preparación e interpretación de repertorio orquestal y de música de cámara de todas las épocas, que trabaja sin director ni líder. Entre sus proyectos recientes figuran la ópera Las bodas de Fígaro de Mozart, la Sinfonía n° 9 de Beethoven, fragmentos de Cosi fan tutte de Mozart y el estreno de Spiralling, de Colin Matthew, en Aldeburgh.

Lorenza estudió con Alina Company, Piero Farulli, Zinaida Gilels y Pavel Vernikov en la Scuola di Musica di Fiesole, y realizó el curso de posgrado en la Kunstuniversität Graz con Boris Kuschnir. Es profesora de violín en la Scuola di Musica di Fiesole y profesora invitada en la Royal Academy of Music de Londres desde 2019.





Bilbao Orkestra  
Sinfonikoa


DENBORALDIA 24 TEMPORADA  
25



urriak 17-18 octubre


# Hurrengo kontzertua Próximo concierto

## El caballero de la rosa

Sergei Dogadin, biolina/violín  
Luis Toro, zuzendaria/director

 Hastapeneko abonua  
Abono de Iniciación

 Palacio Euskalduna Jauregia  
 osteguna | jueves 19:30 h  
ostirala | viernes 19:30 h

 Desde 14,42 €-tik aurrera  
Gaztea (<30):  
desde 5,41 €-tik aurrera

Taquilla Euskaldunako lehiatila  
[www.bilbaoorkestra.eus](http://www.bilbaoorkestra.eus)



 Bizkaia  
Euskaldunak

 Bilbao

